

LANBIDE 2019-2021EKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA

IV. KAPITULUA: ENPLEGU-ZENTROEN JARDUERAK GARATZEKO.

A) Eskara egiteko egoitza elektronikoan lau fase bete behar dira:



LEHENENGO FASEA - IDENTIFIKATU

Lehenik eta behin, zehaztu zure izenean ari zaren (titularra gisa) ala beste pertsona edo entitate baten (ordezkari gisa). Kasuaren arabera, sartu eskabidean zure datuak: titularrarenak edo ordezkariarenak.

BIGARREN FASEA - DATUAK BETE

Eskatutako datuak sartu ondorengo ataleetan:

- ESKABIDEAREN DATUAK

Sartu itzazu: erakunde eskatzailearen identifikazio-datuak, helbide soziala, jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala, abisuak jasotzeko datuak, jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza, entitate eskatzailean desgaitasunen bat duten langileen portzentajea eta entitate mota.

- DIRU-LAGUNTZA ETA ESKATUTAKO EREMUAK

Dagokion aukera X bidez adierazi eta eskatutako eremuak zein diren idatzi. Eskatutako aukeraren arabera, egokitutako eranskina bete.

- ENTITATEAK ENPLEGU ZENTRO BEZALA IZANDAKO IBILBIDEAREN DESKRIPZIOA, 327/2003 DEKRETUAREN BITARTEZ 2008-2010 DENBORALDIAN EDOTA 2011KO 2013KO 2014KO 2015EKO ETA 2017KO ORIENTAZIOAKO DEIALDIEN BAITAN (23.2.b Artikukua)

Zerrendan agertzen diren deialdietan Enplegu Zentroko Zerbitzuaren iraupena adierazi (urtetan).

- ZINPEKO AITORPENA

Zure erantzukizupean aitortu adierazpenetan azaltzen diren datuak benetakoak direla.

- ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Erantsi beharreko dokumentazioaren zerrenda agertzen da. Geroago, hirugarren fasean, dokumentazioa erantsi.

- I ERANSKINA

Zailtasun bereziko eta desgaitasunen bat duten kolektiboak dauden eremuetarako dirulaguntza aukera markatzen baduzu, bete behar izango duzu eranskina hau (zentroen kokapena).

- II ERANSKINA

Zerbitzua banatuta eskaini dezaketen eremuetarako diru-laguntza aukera markatzen baduzu, bete behar izango duzu eranskina hau (zentroen kokapena).

- III ERANSKINA

Beste eremu guztietarako diru-laguntza markatzen baduzu, bete behar izango duzu eranskina hau (zentroen kokapena).

I. II. eta III. eranskinetan entitateek eremu berean kokapen bat baino gehiago duten eremuak eskatuz gero, kokapen horiei buruzko informazioa zehaztu beharko dute.

HIRUGARREN FASEA - DOKUMENTUAK ERANTSI

III. fase honetan deialdiaren arabera beharreko dokumentuak erantsi.

LAUGARREN FASEA – SINATU ETA BIDALI

Sinatu eta bidali eskaera eta deskargatu erregistroaren frogagarria.

Gero, betetako eskaera deskargatu.

ESKAERA DESKARGATZEA OSO GARRANTZITSUA DA. IZAN ERE, GEROAGO EZIN DA HORI EGINGO “NIRE KARPETA” ATALETIK IZAPIDEGILEAK ESPEDIENTEA SORTU ARTE. Horretarako, “ESKABIDEA DESKARGATU” aukeratu:

✓ **Eskabidea bidali**

[Ikusi contextSubmission](#)

Zure eskabidea ondo bidali egin da administrazioa. Erregistroaren frogagiria deskargatu eta gorde dezakezu. [Lortu erregistroaren frogagiria estekaren bidez.](#)

Minutu batzuk barru kontsultatzeko moduan izango duzu espedientea [Nire karpeta](#).

EAEko Administrazio Publikoa

Erregistro elektronikoa. Aurkeztutako dokumentuen agiria



Erregistroko datuak

Erregistro-zenbakia 2018RTE00004927
Erregistro-data 18/12/18 14:55:34
Eskaraeren jasotze-data 18/12/18 14:55:34

Igorlea

74586211V - CIUDADANO PRUEBA DESARROLLO

Jasotzailea

LANBIDE - EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
LANERATZEA AKTIBATZEKO ZUZENDARITZA

Gaia

EU-LANBIDE - Convocatoria de ayudas 2019-2021 CAPÍTULO IV: Desarrollo de la actividad de centros de empleo.

Administrazio-isiltasunaren ondorioa

Ezeslea

Ebazteko gehienezko epea

4 Hilabete(ak)

Erantsitako dokumentuak

» [Eskabide - Eskara.html](#)

» **Modu elektronikoan sinatu duena:**

EAEko Administrazio Publikoa

ITXI

ESKABIDEA DESKARGATU

Espedientea sortzea ez da automatikoki egiten. Horregatik, ezin da kontsultatu minutu batzuk pasa eta gero, itxaron behar da izapidegileak espedientea sortu arte.

B) IV.kapitulu honetan agertzen diren laguntzak eskatzeko bakarrik eskaera bat beteko da. Izapidegileak espedientea sortu eta gero, dokumentuak erantsi ahalko dituzu "Nire karpeta" atalean egoitza elektronikoaren bidez.

Espedientearen egoera

 **Espediente hau izapidetzen ari da**
Irekitze data: 2018/12/17
Izapidetzeko epearen amaiera:
Nahi baduzu, atzera egin dezakezu [ATZERA EGIN](#)

[DOKUMENTUAK ERANTSI](#)

Baremazioa egiteko bakarrik izango dira kontuan epe barruan aurkeztutako dokumentuak.

Eskabide aurkezp~~en~~aren ondorengo tramiteak “Nire Karpeta” ataletik egin beharko dira elektroniko moduaren bidez.

Horrez gain, gogorazten da Lanbideren www.lanbide.euskadi.eus web-orrialdean argitaratuko direla zuzenketak behar dituzten eskaerak, behin-behineko ebazpen-proposamena eta esleipenaren behin betiko ebazpena, jakinarazpen-ondorioekin (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikulua).